



BARREN
TOKIKOM



Etxeberriatarren arrastoan

Jesus Etxeberria,
osaba Toribio Etxeberriak egin zituen ibileren maparekin



Udazkenean haizeak Iparraldetik joko du Elgoibarren!



OSASUN GIDA



OPTIKAK

65\07

IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA

Egunero:
9:30-13:00
16:30-20:00
San Bartolome, 10
Elgoibar
Tel: 943 743 734

183\12

UZURI

- Optometria
- Kontaktologia
- Tonometria

Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00
San Frantzisko, 21
Elgoibar
Tel: 943 740 359

HORTZ KLINIKAK

171\12

LEKU EDER

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta inplanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Haurrentzako tratamenduak
- PADI

Elena Herrero Lobo
Aita Agirre enparantza,
5 behea - Elgoibar
Tel: 943 530 053

GINEKOLOGIA

82\15

*M^a JOSE RUIZ DE PORRES
DOKTOREA*

- Bularren azterketa
- Minbiziaren azterketa prebentiboa
- Zitologia
- Baginako eta sabelaldeko ekografia
- Mamografiak
- Bularretako ekografia
- Nerabeentzako arreta
- Menopausiadunentzako arreta
- Densitometriak
- Haurdunaldiaren kontrola
- Kontrapzepzio

Toribio Etxebarria, 4-1.ezk.
Eibar
Tel.: 943 202 857

FISIOTERAPIA

271\12

AINHOA FISIOTERAPIA ZENTRUA

- Fisioterapia eta osteopatia
- Eskuterapiak
- Drenatzale linfatikoa (Vodder metodoa)
- Taping neuromuskularra

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 531 953 - 669 565 745

177\12 fisio&más

Fisioterapia aurreratua eta kirol berregokitzea

- Esku-terapia.
- E.P.I @ (Tendinitis tratamendua, zuntz-haustura)
- Esku Drainatze linfatikoa (DLM).
- Mesoterapia homeopatikoa: + Traumatologia. + Estetika (zelulitisa, estriak)

Osasunerako ariketa agindua
(Diabetes, osteoporosis, hipertensio arteriala)

Entrenamendu gidatua

Pilates makinak (errehabilitazioa) 3 pertsona gehien.

Txirindulariaren biomekanika
(kalak, ergonomia bizikletan eta lesioen prebentzioa)

Trenbide kalea 13, behea.
Tel.: 943 740 191 - 667 953 628

AUDIOLOGIA PROTESIKOAK

183\12

UZURI

- Entzumen protesia
- Tapiok neurria (uretarako tapiok, zaraten kontrakoak...)
- Audiometriak
- Audifonoak
- Akufenoen terapia

Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00
San Frantzisko, 21
Elgoibar - Tel: 943 740 359



GARAZI AYESTA



“Aurten, aspaldiko partez, lagunartean eztarria urratu dut sutondoan, eta gitarraren akorde bakoitzarekin suak sorgindu egin nau”

Sua beroa da, argia, bizia. Suak badu magia bat, badu indar bat erakartzen gaituena. Nola aldatzen den kolorez, formaz. Nola egiten duten dantzan txinpartek. Nola jaten dituen dotoreziaz bertara botatzen ditugun paper, egur, eta kartoi oro. Eta nola batzen gaituen haren inguruan. Nola erretzen dituen gure lotsak, gure hotzak. Sutondoan elkartzea bera ere bada magikoa, orduan. Eta ez dakit oso ondo zergaitik, baina sekula ez da musikarik eta eztairik falta izaten inguruan. Eta ez dakit oso ondo zergatik, baina uste dut jendeak normalean baino barre gehiago egiten duela momentu horietan.

Nora, akordatzen zara gazteagoak ginenean zenbat disfrutatzen genuen sanjoanetan erretzeko kartoi bila? Nola antolatzen ginen koadrilaka, norbere sua non izango zen pentsatu eta herri guztia goitik behera mihatuz kartoi puskarik handiena nork eramango lehia... Eta, nola lapurtzen genion elkarri, gure altxorrik preziatuena pantaila handiko telebista haren kaxa izango balitz moduan? Edo nola prestatzen genituen irrikaz ikasturte hartako gizarteko liburuak, suak irentsi zitzan?

Ettxera joan, ilusioz armairuko trapurrik zaharrenak jantzi eta salto egiten genuen, beldurrik gabe, ausart. Udaren eta oporren seinale izaten zen hura, eta guk, saltoka ospatzen genuen, salto, salto, salto. Eta erre. Eta zikindu. Eta bronka bat edo beste jaso min hartu ostean. Eta, zer? Aurten, aspaldiko partez, berriro ere sutan saltoka eman diot hasiera udari. Aurten, aspaldiko partez, lagunartean eztarria urratu dut sutondoan. Eta gitarraren akorde bakoitzarekin suak sorgindu egin nau. Lehen bezala, beti bezala. Mesedez, irau dezala bada sorginkeria honek, hurrengo zeruraino jauzi egiten dudan arte.



NORA HADI

“Suak sorgintzen gintuen, eta oraindik ere sorgintzen gaitu, bai, eta eskerrak!”

Akordatuko ez naiz ba sanjoan suaz... Ondo esan duzun moduan, oporrei hasiera emateko tradizioa zen hura, ohitura benetan sakratua. Gure adin inguruko koadrilla guztiok egiten genuen su bana, den-denok. Herriko txorrik onena bilatzea izan ohi zen kontua, eta gurasoen laguntzarekin dena ondo prestatzea, surik ikusgarriena gurea izan zedin. Zenbat ordu pasatuko ote genituen hango eta hemengo dendetan kartoi eskean? Baina dena bezala, gainerako guztia bezala, urte batzuk eta gero aspertu ginen tradizio horrekin, eta ez genuen gure sentitzen. Hori egiteko adina ere pasatu zitzaigun. Edo, momentuko harrokerian, pentsatu genuen pasatu zitzaigula eta dagoeneko ez genuela behar sutan salto egiterik. Ke usaina, arropak zikintzea, nekea... Edozein aitzakiak balio digu orain. Edo hori uste dugu guk, inozenteak.

Baina Garazi, ez al duzu uste primeran etortzen dela eta gainera osasungarria ere badela, noizbehinka izan ginen haretara itzultzea? Umetako zapatila zaharrak ondo lotu eta zerua ukitzeraingo jauzi batekin, sua alderik alde gurutzatzea? Praka barrera apurtu zaizun edo saltoaren indarrarekin ileak harrotu zaizkizun axola gabe. Suak sorgintzen gintuen, eta oraindik ere sorgintzen gaitu bai, eta eskerrak. Bestela, ez genuke saltorik egingo, ez genituzke arropa zaharrak jantzi ere egingo, eta are gutxiago apurtu. Ez genuke ito arte barrerik egingo mozkortu ezean, eta ez genuke umekeriarik egingo. Nik aurten gizarteko libururik ez dut erreko, baina gustura erreko nituzke kor-batak, langabezia, hor nonbaiteko politikari bat edo beste, eta selfie makilatxoak.



Psikologikoa da, edo ez da? Ea hor gakoa

zein organutan eragin dai-tekeela, gorputzeko energia puntu ezberdinetan eraginez lortuko dugula oreka etab.

Beraz, onartzen dugu eta uler dezakegu gorputza konektatuta dagoela, badirela garunetik hanka puntaraino doazen konexioak; baina non daude edo non dabilta emozioak? Eta bizitzeko gogoa? Nortasuna?

tza larriagotzeko orduan. Baina hori nola gertatzen den pentsatzeak edo egoerei aurre egiteko dugun gaitasunaren arabera gaixotu edo sendatu gaitzekinaren ideiak ezinezona sortzen digu askotan.

Niri, berriz, infekzio prozesu batez edo heste suminkor baten sintomez hitz egiten ari zaizkidanean, bururatzen zaidan galderak honakoak dira: nori buruz ari gara? Nori gertatzen ari zaio hori? Bere bizitzeko zein momentutan?

Konfiantza badugu eta seguru sentitzen bagara, gure immunologia sistema tinko mantenduko da mikroorganismo arrotzen aurrean. Baina beldurrez eta triste bagaude, kikildurik, erraza izango da edozein motatako infekzio bat hartzea. Osotasunean zaindu behar gara. Gorputza elikadura egokiz eta bitaminenez zaintzen badugu, baina gure desio, beldur, kezka entzun eta kudeatu gabe, ez da eraginkorra izango gure zainketa.

*“Bitxia egiten zait
nekearen, kezken,
beldurren edo gatazken
inguruan galdetzean
sortzen den isiltasuna”*

Erraz onartu ohi dugu gaixotasun larri baten aurrean norberak duen jarrerak eragin handia duela hobera egiteko edo gai-

Bitxia iruditu zait inguruan etengabe birus honen eta besteren inguruko xehetasunak, sintomen deskribapen zehatzak, tratamendu ezberdinak, medikuaren esanak... entzutea; eta bitxia egiten zait, era berean, nekearen, kezken, beldurren edo gatazken inguruan galdetzean sortzen den isiltasuna.

Geroz eta gehiago joaten gara medikuntza alternatiboko zentroetara, eta haieran teoria ezberdinak aurki ditzakegu; hanka azpian eraginez gorputzeko edo-



ARGITARATZAILEA:



**Kalebarren plaza, 2 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus
Publizitatea: 943 743 704 - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus**

BARRENeK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENeK ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Alberdi **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Iureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

LAGUNTZAILEAK:



elgoibar
bizirik



BARREnek ez du nere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzunkizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NAN eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► TXALOTZEOA

Txalo bero bat eman nahi diegu Haizea taldeko Pili eta Corori, Zaragozara antolatuz irteeragatik. Mila esker zuen ilusioagatik, eta zuen aisialdi denborari ostu dizkiozuen ordu guztiengatik. Ordu horiek guztiak zuen senideei eta zuen zaletasunei eskaini beharrean, guri eskaini dizkiguzue, asteburu polit eta zoragarri bat eskaintzeko. Eta esan behar dut ekonomilari bikainak zaretela, diru gutxirekin ez zaigulako ezer falta izan: jatekoa, irteerak eta dibertsioa. Jakin ezazue gure errekonozimendua eta esker ona ziurtatuta ditzuela. Haizea denok gara!

Haizea Emakume Taldea

► ESKERRIK ASKO

Lerro hauen bidez, Elgoibarko eta Mendaroko Gure Esku Dagoko batzordekideok eskerrak eman nahi dizkizuegu igandeko ekitaldietan modu batera zein bestera parte hartu zenuten guztioi, eta bereziki, egun horretan lan egiteko izena eman zenutenoi. Mila esker guztioi!. Iru-

ñeko zezen plaza, Baionako Christian Belaskain errugbi zelaia, Anoeta eta San Mames Barria estadioak, eta Gasteizko kaleak betetzea jarri genuen erronka, eta guri, gipuzkoarroi, Anoeta betetzea zego-kigun. Ez genuen lortu estadioa betetzea, baina Anoetan bizi izan zen ilusio eta poza, eta bereziki, han bildu ginenon aurrera egiteko gogoia bada hori baino gehiago. Garbi dago Gure Esku Dago sortu aurretik aulki huts horiek gehiago zirela, eta beraz, harro egon gaitzke orain arte egindakoaz. Dinamika honek lortu du atzo aurrez aurre zeuden herritarrak helburu baten bueltan batzea, lortu du herritarrak erabakitzeko eskubidera gerturatzea, eta lortu du askorengan ilusioa piztea. Horixe izan zen zuetako askok igandean behin eta berriz azpimarratu zeniguten sentimendua ere: ilusioa.

Gozatzeko eguna izan zen igandea eta gozatu genuen, bai, baina garbi dugu bide luzea dugula oraindik egiteko eta jarraitu behar dugula borondateak josten eta pausoak ematen, erabakitzeko esku-

bidea gauzatzea delako gure helburua. Eta hori, jakina, denon indarrak batuta baino ezingo dugu lortu. Beraz, eskerrak emateaz gain, zuen bueltan ilusioa pizten jarraitzeko eskatu nahi dizuegu, Gure Esku Dago lelo bat baino gehiago jarrera bat delako. Etorkizuna Gure Esku Dago, lagunok!

**Elgoibarko eta Mendaroko
Gure Esku Dago batzordeak**

► ESKERRIK ASKO

Aurten ere jende asko bildu gara Sanlo eskubaloi taldearen festa ospatzeko. 450 lagun inguru eta eskerrak eman nahi dizkiegu guztiei: jokalari, entrenatzaile, guraso, ordezkari, jarraitzaile, babesle, Udala eta festa egiten lagundu digutenei. Barkamena ere eskatu nahi diegu festak sortu zituen zaratak eta eragozpenak jasan behar izan zituztenei eta eskerrak eman aldi berean.

Sanlo EKT



Antonio Ansola Gurrutxaga

**Aita, joan zara amaren ondora,
nahi zenuen tokira.**

**Orain, zuek biok,
leku zoriontsu hortatik,
jarraitu gu zaintzen.**

Gure bihotzean izango zara betirako.

2015eko ekainaren 16an hil zen, 90 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Tantaka tabernako pintxoak saritu du epaimahaiak eta Sigmakoa izan da herritarren gustukuena

Tantaka tabernako *Udako zaporea* pintxoak jaso du Pintxo Onenaren saria, eta Sigma jabetzeko *Sigmako itsaso gorria* izan da herritarren gustukuena. Guztira, 6.564 boto-txartel eman dituzte herritarrek, eta parte-hartzeaz balorazio positiboa egin dute antolatzaileek.

Taberna bakoitzak 365 pintxo saldu ditu batezbeste, iazko antzera beraz, iaz 362 boto saldu zituztelako. Pintxoaren itxura eta zaporea izan dira epaimahaiak pintxo onena aukeratzeko kontuan hartu dituen irizpideetako bi, baina aitortu dute bereziki tabernariak pintxoak prestatzeko egin duten ahaleginari erreparatu diotela aurten gehien.

Ekitaldian, Pintxo Lehiaketaren helbu-



ruak bi direla nabarmendu du Ane Beitia alkateak, ostalaritzan euskararen erabilera sustatzea eta sektorea berea indartzea, eta esan du herritarrek emandako boto-txartel kopuruak erakusten duela biak bete direla. Tantaka eta Sigma izan dira saritu nagusiak, baina sail bakoitzean beste bina tabernako pintxoak

ere nabarmendu dituzte. Pintxo Onenaren sarian, Sigma eta Lerun tabernetako pintxoak nabarmendu ditu epaimahaiak, hurrenez hurren, eta Ibai-Ondo eta San Roke tabernetakoak izan dira, Sigmakoa ostean, herritarren gustukuenak. Aurten, hemezortzi tabernak parte hartu dute lehiaketan.

Elgoibarko Udal gobernua zehaztu ditu sailtako arduradunak

Joan den maiatzaren 24ko hauteskunderen ostean osatutako udalbatza berriak, Elgoibarko Udaleko batzordeak eta sailtako arduradunak izendatu zituen joan zen astean. Elgoibarko Udaleko Gobernu-batzordea EAJko lau kidek (Ane Beitia, Josu Arraiz, Bittori Zabala eta Maialen Gurrutxaga) eta EHBilduko (Jose Luis Ibartzabal) eta PSE-EEko (Nerea Alustiza) ordezkari banak osatuko dute, eta sailtako arduradunak hauek izango dira:

- ▶ Artekiritza (Ogasuna): Bittori Zabala Fernandez.
- ▶ Parte-hartzea eta Gardentasuna: Andrea Arriola Ferrer.
- ▶ Barne eta pertsonal arloa: Unai Arizmendiarrrieta Garcia.
- ▶ Hirigintza: Josu Arraiz Aranburu.

- ▶ Landa Ingurua: Ioseba Arrizabalaga Mendikute.
- ▶ Gizarte Ongizate Saila: Blanca Larrañaga.
- ▶ Berdintasuna: Bittori Zabala Fernandez.
- ▶ Gazteria: Maialen Gurrutxaga Uranga.
- ▶ Kultura Saila: Andrea Arriola Ferrer.
- ▶ Euskara Saila: Maialen Gurrutxaga Uranga.

Horrez gain, alkatea eta alkateordea lanaldi osoan arituko direla ere onartu zuten eta baita jasoko duten soldataren zenbakekoa ere. Elgoibarko alkate Ane Beitiak 67.087,03 euroko soldata gordina jasoko du urtean, eta Josu Arraiz alkateordeak, berriz, 60.378,33 eurokoa. Joan den legegintzaldian 70.238 euroko soldata gordina zuen urteko Elgoibarko alkateak, eta %10 txikiagoa alkateordeak.

Odol ateratzeak egingo dituzte gaur Elgoibarren

Gipuzkoako odol bankua gaur etorriko da Elgoibarrera, eta nahi duenak, 18:30etik 20:30era bitartean izango du odola emateko aukera. Arduradunek jakinarazi dute odol premia handia dagoela, eta gazteei egin diete dei bereziki, odola ematera joan daitezten.

Hamar film eskainiko dituzte aire libreko zine emanaldian



Elgoibarko Udaleko Kultura Sailak antolatuta, uztailaren 3an hasiko da aire libreko zine emanaldia. *Ocho apellidos vascos* izango da lehenengo filma, eta guztira hamar film emango dituzte. Barixaku eta zapatu iluntzetan izango dira saio gehienak, eta emanaldi egunean euria egiten duen egunetan, proiektioak atzeratu egingo dituzte. Hala, barixakuetako filma domekara pasatuko dute euria egiten duenean, eta zapatukoa, astelehenera edo hurrengo egunera. Pelikula guztiak 22:30ean hasiko dira. Kalegoen plazan 600 bat lagunentzako lekua izango dute zine zaleek.

Mekako Haur Hezkuntzako ikasleak saritu dituzte Suspertzailtza Alorrean



Mekako Haur Hezkuntzako ikasleak saritu dituzte Ikasapresa suspertzailtza proiektuan. Ikasle, irakasle eta Asun Larrañaga zuzendariarekin batera Lanbide Heziketako Zuzendaria den Ramon Martinez de Murgia izan ziren sari banaketa ekitaldian.

Udako euskara ikastaroak AEK euskaltegian

AEK euskaltegiak uztailaren eta irailean eskolak emango ditu EGA, IRALE, IVAP, Osakidetza zein HABE azterketak prestatzeko. Udalak jarritako baldintzak betetzen dituztenek matrikula erdia ordaindu beharko dute. Izena emateko edo informazioa eskatzeko, jo AEK euskategira (Gabriel Kurutzelaegi, 10), 607 601 423 telefonora deitu edo elgoibar@aek.org helbidera idatzi.

Arte tailerra, Pello Arrietarekin

Haizeak antolatuta, arte tailerra egingo dute astelehenean, Pello Arrieta historialariarekin. Kultur Etxe aurrean elkartuko dira 17:30ean, eta San Frantzisko kalean zehar, Maalaraino egingo dute ibilbidea, ingurune horretan dauden eraikinen historia ezagutzeko.

Kontsumo taldekoak ETBko 'Txoriene' saioan

Bazkalosteko ETB1eko sukaldaritza saioa da *Txoriene*, baina sukaldariez aparte, aurpegi ezagunak ere gonbidatzen dituzte saiora astean egun batean eta hornitzaileak joaten dira platora sukaldatzera. Joan zen astean Elgoibarko eta Mendaroko Kontsumo Taldeko kide Paula Heras eta Haritz Arrieta izan ziren saioan. Udaberriko ilarrak prestatu zituzten, patata berriarekin eta arrautzarekin. Elgoibarko eta Mendaroko Kontsumo Taldekoek, besteak beste, Alzola Berazeta baserrian ekoiztutako barazkiak eraman zituzten saiora.





Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Mintxetako parkeko kantxa oso labaina da. "Mintxetako haur-parkean dagoen kantxa ez dago erabiltzeko moduan. Hondarrez beteta dago, eta lurra oso labaina da. Umeak erori egiten dira, eta min hartzen dute. Eskertuko genuke kantxa konpontzea, ume askok erabiltzen dutelako gunehori".



Taupada antzerki taldeko Edurne Lasa eta Jose Mari Larrañagak eskerak eman nahi dizkie 'Bohemioen kluba' ikustera joan ziren herritarrei: "Gure eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu Herriko Antzokian egin genuen *Bohemioen klubaren* estreinaldira etorri zineten guztioi. Zuen babes ezinbestekoa da guretzat".



Eskerrak Udalari, 60 urtetik gorakoentzako kirol ikastaroak antolatzeagatik: "Elgoibarko alkate andreaki eta Udalari, eskerrak. Adin nagusiko pertsonentzako (60+) ikastaroan parte hartu dugun kideak gara, eta biziki eskertzen diogu Udalari, halako ikastaro osatua eta egokia antolatzeagatik".



Txalo bero bat Elgoibarko Izarrari, San Joan bezperan antolatu zuen jaiagatik: "Jai polita prestatu zuen Elgoibarko Izarrak Sallobenten, eta ume zein gurasoek primeran pasatu zuten. Giro polita egon zen, eta jendeak oso ondo pasatu zuen. Horrez gain, beste txalo bat merezi dute ingurunea txukun eta garbi utzi zutelako. Jai amaitu ostean zabor guztia batu zuten, eta han ez zen ezeren arrastorik geratu. Segi horrela!".

LAGUNAK
colchoneria textil hogar

SAN ROKE KALEA, 20
TEL: 943 744 457
ELGOIBAR

www.colchonerialagunak.com



Orain bai ez duzula
koltxoiz ez aldatzeko aitzakiarik!
Lagunak Koltxoi-dendan aurkituko duzu zurea,
hilean 9,50 eurogatik

▶ Udaren etorrera ospatu dute

Suaren bueltan eta jai-giroan ospatu zuten udaren etorrera Elgoibarren eta Mendaron, San Joan bezperan. Elgoibarko Izarrak Ekigain jaia egin zuen estreinakoz Sallobenten eta 200 bat lagun batu ziren suaren bueltan. Altzolan, berriz, San Joan festak ospatzen dihardute oraindik, eta hango ohiturari jarraituz, ibaian piztu zuten sua. Mendaron, bestalde, akelarrea prestatu zuten Lurdotekako eta Gaztelekuko kideek, udari ongi-etorria egiteko. Argazki gehiago eta bideoak ikusteko: www.barren.eus



Akerbeltz eta bere segizioa, Trinidadetik jaitsi ziren plazara.



Su argiak zerurantz bidali zituzten Altzolan.



Ekigain jaia antolatu zuen Elgoibarko Izarrak estreinakoz, eta 200 bat lagun batu ziren Sallobenten, suaren bueltan.



Su gainetik salto egin zuten.



Sua piztu, eta haren bueltan dantza egin eta abestu zuten Sallobenten.



Jesus Etxeberria, Lauren, Sarah eta Jennifer Richter eta Alfredo Etxeberria joan zen astean Elgoibarren egindako argazkian.

Kaliforniatik Elgoibarrera, sustraien bila

Sarah, Jennifer eta Lauren Richterrek astebete egin dute Elgoibarren, etxeberriatarren etxean. Jesus Etxeberriaren osaba Toribioren ondorengoak dira, 13 urterekin Argentinara joan eta mundua alderik alde gurutzatu zuen elgoibartar haren ondorengo laugarren belaunaldia. "Sustraien bila" etorri dira Euskal Herrira, eta berriro ere itzuliko direla aurreratu dute. Atlantikoaz bateko eta besteko etxeberriatarrak batu ditugu guk hemen.

- AINARA ARGOITIA -



Argentina, Frantzia, Ameriketako Estatu Batuak, Txile, Mexiko, Panama, El Salvador, Guatemala, Egipto, Saudi Arabia, Italia, Frantzia... Bere garairako mundu handiko gizona zen Toribio Etxeberria (1894-1950). Munduan barrena ibili zen, hara eta hona, konta ezin beste itsas-milia eta kilometro eginez. Elgoibarko Sallobente auzokoak zituen gurasoak eta Loritoneko etxean hazi zen bera, harik eta 13 bat urterekin, aitak, Prudentzio Etxeberriak, Argentinara bidali zuen arte, senide batzuen etxera. Bost seme-alaba izan zituzten Prudentziok eta Maria Etxabek, eta familia mantendu ezinak behartu zituen seme zaharrena atzerrira bidaltzera –Mendaroko tren geltokiko buru zen Prudentzio–. Orain, Elgoibarren izan dira haren ondorengoak, euren sustraien bila. Astebete egin dute gurean Sarah Richterrek eta Jennifer eta Lauren Richter ama-alabek, etxeberriatarren etxean.

Jesus Etxeberriak eta haren seme Alfredok egin dituzte aurkezpen-lanak. Toribiok bi alaba izan zituen, Doris eta Marcia, eta hain justu ere, bigarren horren biloba da Sarah. Bigarren aldia da Euskal Herrira etortzen dela, aurrez 2003an egon zelako hemen, baina beste lagun batzuekin itzuli da orain: koinata Jennifer eta 16 urteko iloba Laurenekin. Estreinakoz etorri dira haiek Elgoibarrera, eta isil-antzean daude elkarrizketan zehar. Kaliforniakoak dira hirurak, Sacramento iparraldekoak, hiriburutik ordubetera dagoen herri batekoak.



Irakaslea da ogibidez Sarah, eta nekazaritzatik bizi dira haren senide gertuenak, neba eta koinata. "Eskala handiko nekazaritza da hauena. Ameriketara gauza txirik ez dago, badakizu", dio Jesus Etxeberriak. 2.000 bat hektareako lur-sailaren jabe direla aipatu du eta arroz eta tomateak ekoizten dituztela, besteak beste. Baina ez ditugu horregatik batu; 13 urte eskasekin sorteria laga eta mundu zabalera abiatu zen Toribio Etxeberria haren ondorengo laugarren belaunaldia osatzen dutelako baizik.

Gutxi dakite Toribiotaz gure gaurko protagonistek. Amama Marcirengandik jasotako hiru-lau datu baino ez, Sarah aitortu duenez: Elgoibarren jaio zela, oso gazterik erbestera zela Argentinara, mundua alderik alde gurutzatu zuela lan kontuengatik eta Wake Islanden hil zela, hain justu ere Bigarren Mundu Gerra garaian, Japonia aliatuen aurrean errenditu eta 1945eko irailaren 2an errendizio-akta sinatu zuen lekuan -Sacramenton (Kalifornia, AEB) hilobiratu zuten gero-. Hala ere, Toribiok asko esan nahi du haienentzat, batez ere Sarahentzat. Eta nabari zaio Euskal Herrira etortzearen arrazoiez hizketan ari dela. "Berezia da hona etortzea. Hemengoa genuen gure birraitona, beti izan zuen bere herriarekiko lillura, eta Euskal Herriarekiko lotura hori bizi dugu geuk ere. Lehenengoz hona etorri nintzenez, Europako beste hiri batzuk ere bisitatu nituen Elgoibarrera etorri aurretik: Londres, Paris, Florentzia eta Erroma, eta gauza politak eta interesagarriak ikusi nituen, baina Elgoibarrera etortzeak beste zirrara bat eragin zidan; beste hiriekiko ez dudana dut Elgoibarrek: jatorriarekiko lotura historikoa". Arbasoenganako lotu-

ra hori eta haiena zen kulturarekiko sentimendu hori modu berezian bizi dute. Horregatik, adi entzuten dituzte Jesus Etxeberriaren azalpenak, etxeberritarren kate-begi horretako "maiorazgoaren" hitzak.

OFIZIOZ MEKANIKOAK

Toribio zenaren iloba da Jesus, eta urteen joanean osatu du osaba zuenaren historia. Badaki Detroiten, motorgintzaren sorlekuan, ikasi zuela ofizioa: mekaniko-ofizioa, eta Edith izeneko estatubatuar batekin ezkondu eta bi alaba izan zituela San Frantziskon. Mekanikoa zen, beraz, ofizioz, baina askotariko lanetan jardun zuen: ibili zen xaboi enpresa batean lanean, aritu zen aire egokituaren sektoreko beste enpresa batean ere, baina gasa eta petrolio ekoizten zuen enpresentzat lanean emandako urteetan egin zituen munduan ibilera gehien eta pilatu zituen bizi-erperientzia gehien. Euskaraz gain, sei hizkuntza ikasi zituen, eta denboraldi luzez Saudi Arabian egon zen bizitzen.

Hein handi batean Toribiok berak etxekoei idatziz bidali zizkien gutunei eta Euskal Herrira itzuli zen lehenengo aldian ekarri zuen munduko mapa handiari esker osatu du Jesus Etxeberriak osabaren historia. Izan ere, munduan hara-hona ibili arren, etxekoekin harremana beti mantendu zuen Toribiok, 36ko gerra hasi zen arte. "1936. urte aldera eten bat dago. Ordura arte idazten zien etxekoei, baina gerra hasi eta bat galdu zuten haren pista Elgoibarko senideek, eta herrira itzuli zen arte ez zuten gehiago haren berri izan. -Bigarren Mundu Gerra bukatu ostean itzuli zen Elgoibarrera lehenengoz-", aipatu du Jesus Etxeberriak. "Beldurrez" etorri zela esan zuen haren alaba

*Elgoibarren
jaio zen, oso
gazte joan zen
Argentinara,
mundua alderik
alde gurutzatu
zuen, eta
Wake Islanden
hil zen Toribio
Etxeberria*

Marcia Etxeberriak, Dori arreba eta biek BARRENI 1996. urtean eskaini zioten elkarrizketan. "Beldurrez itzuli zen, ez baitzekien hemen zer topatuko zuen". Gurasoak hilda zituen ordurako, baina bizi zituen lau neba-arrebak: Florentino, Patxi, Bene eta Facunda, eta "besoak-zabalik" hartu zuten.

Bitxia izan zen itzulera bera ere. Hemengo senideek ez zuten haren berri, eta jakina, ez zuten espero. Donostiara iritsi zen Toribio eta han jostundegi batera sartu zen praka *milrayasak* erostera. Euskaraz bazekien, baina dendariak igarri zion zerbait eta

"Kalera irten eta

aiton-amonak

umeak zaintzen

ikustea harrigarria

egin zait oso. Gu

bizi garen lekuan

ez da batere

ohikoa hori"



nongoa zen galdetu zion. Elgoibarkoa zela argitu zionean, dendariak hamar minutuz itzaroteko eskatu zion, orduantxe zelako iristekoa errekadista elgoibartar bat: Manuela Zabala. "Ezusteko handia izan zen berarentzat, eskolako laguna zuelako Manuela", zehaztu du Jesussek. Toribio Euskal Herrian zela gabez jakin zuten etxeberriarrenean, eta biharamunean agertu zen gure amerikarra Elgoibarrera, Pulmanean. Munduko mapa handi bat zuela itzuli zen Toribio sorterrira, eta hemen, Florentino anaiaren laguntzarekin, mapa horretan markatu zituzten ordura arteko ibiliak, gero, bigarren aldiz itzuli zenean, osatuko zituztenak.

52 urte zituen orduan, baina aurrez ere izan zuen sorterrira itzultzeko tentaziora. 28 urterekin Bordeleraino (Frantzia) gerturatu zen, baina handik etxerako bidea hartu beharrean, itsasontzi bat hartu eta New Yorkera joan zen berriro, ustez soldaduska egiteko hartuko

zuten beldurrez. "Seguru ez gaude, baina uste dugu horregatik izan zela, garai hartan soldaduska derrigorrezkoa zelako eta gainera oso luzea izaten zelako", adierazi du Alfredo Etxeberriak.

EUSKAL HERRIA-KALIFORNIA

14 bat urte zituen Jesus Etxeberriak osaba Elgoibarrera etorri zen aurreneko aldian, baina oso oroitzapen gutxi ditu bereak. Beti izan du, baina, haren inguruan gehiago jakitzeko ilusioa, eta haren ondorengoak ere ilusio hori bera dutela ikustea asko poztzen du. "Ez dituzte euren sus-traiak ahazten eta gehiagoren bila ari dira beti. Hori pozik egotekoa da", esan du. Sacramenton euskaldunen komunitatea oso txikia dela dio Sarahk, baina euren herrian bizi dela gernikar bat. "San Frantziskon-eta euskal jatorriko asko bizi dira, baina gu bizi garen lekuan geu bakarrik. Idahon, Nevadan... euskal kultura oso bizirik dago, baina gu bizi garen lekuan ez. Hori bai, lehenengoz etorri nintzenean neuk ere erosi nuen lauburu bat. Guretzat ikur bat da lauburu, eta aitortuko dizut han norbaiti lepoan lauburu ikusiz gero, halako harrotasun puntu bat sentitzen dugula. Tamalez, orain hiru urte galdu nuen nerea", zehaztu du. Baietz dio Jesussek buruarekin. Berak ere igarri zuela sentimendu hori han. 2002an joan zen bera Kaliforniara, alaba Anerekin. "Sacramento, Yosemite... denak ikusi genituen. Las Vegasera ere joan ginen dirua jokatzerara. Izugarria da hura. Hori bai, hemendik hara doana hil egin daiteke han. Han ez dabil inor kalean, ez dago hemengo girorik. Behin irten nintzen etxe ondoik buelta bat ematera eta pare bat kilometro egin nituen kalean inor ikusi gabe. Etxe buelta hari bigarren buelta eman nionerako *sheriffa* hantxe neukan begira-begira, nor ote nintzen-edo", esan du.

Hemen, bera ibili da senide amerikarrekin hara eta hona, gidari lanetan. Astebete egin dute Richtertarrek herrian; egonaldi motzegia beharbada ikusi nahiko luketen dena ikusteko, baina "oso pozik" ibili direla aitortu dute. "Kanpandorreraino ere igo dira, eta makina erremintaren museoa ikustera ere eramán ditut", esan du berak. Euskal Herriaz eta bereziki Elgoibarrira buruz berba onak baino ez dituzte hiru amerikarrek. "Leku politak eta interesgarriak" eta jateko ona topatu dituzte hemen, baina harritu beste gauza batek harritu ditu: "Kalera irten eta aitona-amonak umeak zaintzen ikustea harrigarria egin zait oso. Gu bizi garen lekuan ez da batere ohikoa hori", adierazi du Sarahk. Albora begiratu dugu, eta horixe da inguruan dugun irudia: aiton-amonak, umezain.

► Hasi dira udalekuak!



Domekan sartu ginen udan, eta uda iristearekin batera, umeen-tzako oporrak ere iritsi dira. Egun luzeak, eguraldi ona eta aisialdirako denbora libre gehiago izaten dute sasoi honetan umek, eta aisialdiko tarte hori betetzeko udalekuak antolatatu

dituzte aurten ere. Kirol Udalekuak batetik, eta Atxutxiamaikaren udalekuak bestetik.

Kirol udalekuetan 307 haur eta gaztek eman dute izena. Uztailaren 24ra bitartean goi mailako teknikariek hainbat kirol praktikatzeko aukera

izango dute.


Atxutxiamaikaren udalekuetan, bestalde, 274 umek eman dute izena. Kamiseta morea jantzita, Lekuederren atera zuten familia-erreturua. Euskaraz, eta hezikidetzan oinarrituta, hainbat eta hainbat kantu eta jolas egingo dituzte.



Erabakiari begira



Milaka lagunek hartu zuten parte domekan Gure Esku Dago mugimenduak antolatutako ekitaldian, tartean elgoibartar eta mendaroar ugari. Iruñeko zezen plaza, Baionako Christian Belaskain errugbi zelaia, Anoeta eta San Mames Barria estadioak, eta Gasteizko kaleak bete baitzuten erronka jarri zuen mugimenduak eta estadioetan leku huts batzuk bazeuden arren, aniztasuna eta kolorea nagusitu ziren. Aulki hutsak gizar-tearen argazkia islatzen dutela baloratu du Gure Esku Dagok eta esan du leku huts horiek erakusten dutela asko dagoela egiteko oraindik, erabakitzeko eskubidea oinarri bat izan dadin. Orain, hurrengo lana irailean helburura iristeko plangintza adostea izango dela zehaztu dute.





“Nazioarteko DJ onenatarikoak izango ditugu aurtengo jaialdian”

► **Khris Rios** DJ-A

Kida Events elkarteak Elgoibar Dance Festival jaia antolatu du, bigarren urtez. Khris Rios eta David MK elgoibartarrak daude Kida Events elkartearen atzean. Orain dela hamabost bat urte hasi ziren musika elektronikoaren munduan bidea egiten, eta gaur egun Euskal Herriko eta nazioarteko dantzaleku entzutetsuenetan aritzen dira musika jartzen. Musika elektronikoaren kultura zabaldu nahi dute Elgoibarren, eta horretarako antolatu dute EDF jaia. Uztailaren 4an izango da, 17:00etatik aurrera, Albitxurin. Iaz egin zuten estreinako jaia, eta bigarren hau handiagoa izango dela aurreratu dute.

- AINHOA ANDONEGI -



Khris Rios eta David MK.

◆ **Zer prestatu duzue Elgoibar Dance Festival jaiaren bigarren ediziorako?**

Aurtengoa sekulakoa izango da. Euskal Herriko eta nazioarteko DJ onekin osatu dugu kartela, eta oso pozik gaude. David eta biok kontaktu asko dauzkagu mundu honetan, eta horri esker lortu dugu kartel hau osatzea. Ohorea da maila honetako DJak Elgoibarren izatea.

◆ **Iaz eguzkiaren irudiarekin apaindu zenuten eszenatokia. Aurten zein berezitasun izango du?**

Aurten karpa itxia jarriko dugu. Iaz aire librean egin genuen, eta horrek badiu bere arriskuak, eguraldiak dena hondatu dezakeelako. Jende askok eguraldiaren arabera entolatzen ditu planak, eta azken momentura arte jende askok ez zekien etorriko zen edo ez. Aurten, beraz, eguraldia ez da arazo izango. Karpa estalia jarriko dugu, altura desberdinekin. Ikusleek harmailak izango dituzte eserita egoteko, eta 300 bat lagunentzako VIP zonak ere izango dira, butaka eta jarlekuekin, artistengandik gertu. Jateko eta edateko guneak egongo dira,

Gurutze Gorriaren zerbitzua egongo da jaialdia hasten denetik amaierara arte, mila autorentzako aparkalekua...

◆ **Zenbat jende aurreikusten duzue?**

Hori aurreikustea zaila da, baina iaz baino jende gehiago etorriko dela uste dugu. Karpan hiru mila lagunentzako lekua egongo da. Egun berean Ermuan beste jaialdi bat dago, eta horrek kezkatzen gaitu apur bat, baina gogor lan egin dugu eta uste dut jendeak ondo erantzungo duela. Iaz azken momentuan lortu genuen jaialdia antolatzeko baimena, eta dena korrika eta presaka egin behar izan genuen. Ez genuen ia denborarik izan propaganda egiteko ere, eta hala ere, mila pertsona inguru etorri ziren jaira. Aurten sei hilabete daramatzagu lanean. 50 bat komertzial jarri ditugu zonalde desberdinetan informazioa banatzen eta sarrerak saltzen, eta Internetez ere sarrerak saltzen ari gara. Sare sozialetan etengabe ibili gara propaganda egiten, eta uste dugu jendeak ondo erantzungo duela. Nahi duenak aurrez eros ditzake sarrerak 15 euroan

◆ **Hamahiru orduko jaia aurreikusi duzue.**

Bai, 17:00etatik goizeko 6:00ak arte izango da. Iaz 3:00ak arte eman ziguten baimena, eta gero jende etxera bueltatu ezinda geratu zen. Aurten goizaldera arte egongo gara. Herrigunetik autobusak jarriko ditugu Albitxurira igoteko, eta Euskotrenekin ere negoziazioan ari gara, tren zerbitzu berezia jartzeko.

◆ **Elgoibarren badago musika elektronikorako zaletasunik?**

Orain dela hamabost bat urte hasi ginen David MK eta biok mundu honetan bidea egiten, eta poliki-poliki lortu dugu musika hau apur bat zabaltzea, baina musika elektronikoaren kultura herrian zabaltzea delako gure nahia. Iaz izan genuen estreinako esperientzia, eta gustura geratu ginen. Albitxuri herrigunetik aparte dago, baina aldi berean, gertu, eta oso toki egokia da horrelako jai baterako. Herrian egiteak bizilagunekin arazoak ekarriko lizkiguke, eta iaz, dena ondo joan zen aspektu horretan; ez genuen inolako arazorik izan inorekin.

Amaia eta Jone Loiolak irabazi dute bigarren urtez nesken pala txapelketa

Joan zen barixakuan jokatu zuten nesken pala txapelketako finala, eta 22-8 emaitzarekin Amaia eta Jone Loiolak jantzi zuten txapela. Sonia Tomas eta Idoia Larrañaga sailkatu ziren bigarren lekuan. Guztira hamar bikotek hartu zuten parte, eta antolatzaileak oso pozik agertu dira. Irailerako pala mistoko txapelketa antolatzeko asmoa dute.



Bukatu da Lagunak txapelketa



Joan zen astean jokatu zituzten lagunak txapelketako finalak: aurre-benjaminetan, Beñat Basurtok 22-16 irabazi zion Ibon Viñari, eta Iker Izagirrek 22-8 Peru Bereziartuari. Benjaminetan, Gabriel Plazak 22-20 irabazi zion Haizart Iraolagoitiri, eta Alex Berguak 22-17 Beñat Juradori. Alebinetan, berriz, 22-21 irabazi zion Sanchezek Mayorari; eta 22-17 Lukenek Salegiri.

Sanlo festarekin amaitu dute denboraldia



Eskubaloia izan zen protagonista zapatuan. Goizean eskubaloi partidak jokatu zituzten plazan, eta gero, bazkaria egin zuten Sigman. Bazkalostean denboraldiko jokalarri nabarmenduak saritu zituzten. Giro onean pasatu zuten eguna jokalarri, entrenatzaile eta gurasoek. Ia 400 lagun batu ziren Sanlo Festan.

Nahaste Borraste, gaur arratsaldean

Kimetz Elkarteak antolatuta, gaur arratsaldean jokatuko da Nahaste Borraste herri-lasterketa. 19:00etan hasiko da Kalegoen plazan, eta partaideak hiru probatan leihatu beharko dira: zazpi kilometro inguru egin beharko dituzte bizikletan lehenengo, eta ondoren, 400 metro egingo dituzte korrika 25 kiloko zakua bizkarrean hartuta, eta azkenik, 1.500 metroko ibilbidea osatu beharko dute saltaka. Parte hartu nahi duenak proba hasi aurretik eman beharko du izena, Kimetz elkartean.

Euskadiko Cross Country txapelketako proba bihar

Idortorbeko jaien barruan, Euskadiko Cross Country txapelketako kanporaketa antolatu dute biharko. Euskal Herriko, Kantabriako eta Burgoseko 70 bat motozalek hartuko dute parte, eta horien artean, hiru Elgoibarkoak izango dira: Aitor Garcia, Jon Criado eta Aitor Osoro. 11 kilometroko ibilbidea egin beharko dute partaideek Idortorbe eta Arrate bitartean, eta gehienez bi ordu izango dituzte proba amaitzeko. 17:00etan hasiko da. Sari banaketaren ostean, trialsin erakustaldia egongo da, Idortorbeko frontoian.

BTT irteera antolatu du Morkaikok, uztaileko

Morkaiko mendizale elkarteak BTT irteera antolatu du uztailearen 11ko astebururako. Hilaren 11n irtengo dira Elgoibartik 8:30ean, eta Betelu ingurura abiatuko dira. 43 kilometro eta 1.500 metroko desnibel positiboa duen etapa egingo dute. Lizarrastiko aterpetxean hartuko dute ostatu, eta domekan, 44 kilometro eta 1.400 metroko desnibela duen etapa egingo dute. Bazkideek 35 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 40 euro. Izena emateko azken eguna uztailearen 2a izango da.

LANA.....**Eskaerak**

Emakume arduratsua eskaintzen da, umeak zein nagusiak zaintzeko edo taberna eta etxeetan garbiketa lanak egiteko.

☎ 620 258 708

Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentzia onak ditu.

☎ 603 743 240

Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta adinekoak zaintzeko. Abuztuan ere lan egiteko prest.

☎ 638 338 816

Emakumea pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest. Orduka edo interna.

☎ 633 236 528

Emakume arduratsua eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Orduka edo interna.

☎ 632 454 417

Emakume arduratsua eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Orduka edo interna.

☎ 631 705 406

Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest, 09:00etatik 16:00ak bitartean.

☎ 680 808 125

Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Interna.

☎ 631 832 767

Neska eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko.

☎ 667 897 002

Neska eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko.

☎ 685 724 861 / 943 748 899

Neska eskaintzen da sukaldari lanetarako, nagusiak zein umeak zaintzeko edo garbiketarako egiteko.

☎ 633 357 538

Emakumea nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest, orduka.

☎ 653 156 403

Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Orduka.

☎ 616 457 254

Neska euskalduna eskaintzen da portalak garbitzeko.

☎ 617 571 210

Emakumea eskaintzen da, interna, etxeko lanak egiteko zein nagusiak zaintzeko.

☎ 606 641 609

Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo garbiketarako lanetarako.

☎ 626 914 904

Mutila sukaldari laguntzaile (elikagaiak manipulatzeko titularekin) edo zerbitzari lanetarako prest. Behar bereziak dituzten pertsonak zaintzeko prest (ikasketak egiten).

☎ 661 064 027

Neska eskaintzen da orduka, interna edo externa, umeak zein nagusiak zaintzeko.

☎ 635 189 294

Neska eskaintzen da garbiketa lanetarako edo nagusiak zaintzeko. Ordezkapenak egiteko prest.

☎ 638 338 816

Neska eskaintzen da tabernan lan egiteko.

☎ 634 209 087

Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Arduratsua eta esperientziarekin.

☎ 620 258 708

Neska eskaintzen da umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko zein garbiketarako lanetarako.

☎ 606 007 742 (Fatima)

Mutila eskaintzen da etxebizitza edo lokaletan igeltsero eta mortero lanak egiteko edo gotelea kentzeko. Prezio onean.

☎ 658 577 563

Atzerriko hizkuntzan diplomatuak inglesko klase partikularrak ematen ditu. Ekaina eta uztaia. HH, LH eta DBH.

☎ 659 024 427

Mutila eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko, garbiketa lanetarako edo baserriko lanetarako.

☎ 686 077 316

Eskaintzak

Elgoibarko taberna baterako langileak behar dira, sukaldarako eta barrarako. Ezinbestekoa esperientzia izatea. Bidali CV argazkiarekin: tabernalan@gmail.com

Zerbitzari euskalduna eta sukalde laguntzailea behar dira. Esperientzia. CV bidali Gautxo tabernara.

ETXEBIZITZAK.....**Salgai**

Pisua salgai San Bartolome kalean, (7 zenbakia, 2. pisua). Bi logela, egongela, sukaldea, bainugela eta trastelekua. Egoera eta prezio onean.

☎ 665 716 443

Babes ofizialeko bi logelako pisua, hiru logelakoarengatik aldatuko nuke. Gabriel Krutzelaegi kalean dago etxea.

☎ 628 115 677

GARAJEAK.....**Salgai**

Garaje irekia saltzen da ikastolako aldaian. 13m2. Merke.

☎ 666 40 28 30

BESTELAKOAK.....

Martxan dagoen liburudendaren ardurua hartzeko prest dagoen pertsona baten bila gabilta.

☎ 696 394 717 / 677 744 273

Lerun industrigunean, Netto BM hipermerkatuan dagoen Rosa liburudendan loteria saltzeko lizentzia eskualdatzen da, gaixotasunagatik. Harremanetarako: rosadaquinta22@hotmail.com

☎ 680 321 479

Sofa salgai. Ia berria. Tela iragazgaitza.

☎ 628 115 677

Ohe artikulatua salgai. 1,05 neurrikoa, oso gutxi erabilia.

☎ 656 738 884



P. M. Urruzuno kalea, 6 behe - Elgoibar
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net

NORFO SL

Neure etxe ondoan dagoen beste bat erosi berri dut, barrutik biak batu eta espazio handiago bat lortu asmoz. Azkeneko batzarrean esan didate, baina, ez didatela obra hori egiteko baimenik emango, eta une honetan zer egin ez dakidala nago.

Lehenengo eta behin, Estatutuetan gai honen inguruan zerbait zehazten den begiratu beharko zenuke, eta baldin badago, jasotako arauak bete.

Legeak baimentzen du berez etxebizitzak eta lokalak zatitzea, lokal txikiagoak sortzeko, eta baimentzen du, era berean, etxebizitzak edo elkarren ondoan dauden lokalak batzea ere. Horretarako, baina, ezinbestekoa da etxetxeraren batzarrean onespina izatea, bera baita erreformatutako etxebizitzia horien parte-hartze kuota berriak zehaztu beharko dituen, gainerako guztiak bere horretan lagata.

Zure kasuan, bi etxebizitzak barrutik batu daitezkeela jakinda eta horrek hirugarren pertsonari eragiten ez diela kontuan hartuta, nahikoa litzateke aurreko bi kuota batzea eta gainerako etxetxeraren guztiak dagozkienak bere horretan uztea. Beraz, normalean etxe-jabeek ez liokete eragozpenik jarri beharko zure proiektuari. Hala ere, obra egiteko behar duzun gehiengo hori lortuko ez bazenu, epailearengana jotzeko aukera izango zenuke, beti ere batzarra egin den egunetik hilabeteko tartean. Bi aldean argumentuak entzun eta epaileak erabakiko luke zer egin.

AHOLKUA: Etxean edo zeure lokal horretan edozer egin aurretik, komunitateko agiriak ondo aztertzea komeni da.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

administradores
Centro Vasco de Estudios de Administración de Empresas
Instituto Vasco de Administración de Empresas
Colegio Abogado



Argazkiak eguzten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.




Zorionak, **Irune**, gaur 3 urtetxo beteko dituzulako. Zure nebaren eta gurasoen partez, muxu bat.



Zorionak, **Unai**, hilaren 29an, 6 urte egingo dituzulako. Besarkada handi bat eta muxutu asko etxekoontz partez.



Zorionak, **Go-rane**, gaur 9urte egin dituzulako! Muxu handi-handi bat, familiakoen eta bereziki lke-rreren partez.



Zorionak, **Malen eta Aimar**, asteazkenean 7 urte bete zenituztelako. Muxu handi bat, amatxo eta aitatxoren partez.



TXIKI EGUNEKO BAZKARIA

ELGOIBARKO IZARRAREKIN

15:30etatik aurrera, jendea etorri ahala hasiko gara bazkaria ematen Sigmako aparkalekuan

MENUA:

- Entsaladilla errusiarra
- Masailak saltsan
- Izozkia
- Kafea eta txupittoa (edariak: ura, sagardoa eta ardoa)

15€

Elgoibarko Izarrako bazkideek

17€

Bazkide ez direnek

Trago luzeak: 3,50€

Zoro-zozketa

Spotykaraokea

Izenematea www.elgoibarkoizarra.eus-en, Elgoibarko Izarran eta BARRENe.

Izena emateko azken eguna: uztailaren 27a.



ELGOIBARKO IZARRA
Bazkideak eta bazkideak

Jeku edero

hortz klinika

Elena Herrero Lobo Dra.
Col. 20.000.671



- Diagnostiko digitala
- Estetika (zuriketak)
- Kirurgia eta inplanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak

- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Haurrentzako tratamenduak
- PADI

Aita Agirre Enparantza, 5 behea • 20870 Elgoibar (Gipuzkoa)

Tel.: 943 530 053

26 BARIXAKUA

17:30 Irrien lagunak. Elgoibarko Iza-rrako Atxutxiamaika aisialdi taldeak antolatuta, Maalako parkean.

19:00 Diploma banaketa. Elgoibar BH Institutuko diploma banaketa, Herriko Antzokian.

19:00 Nahaste Borraste. Kimetz elkar-teak antolatuta. Kalegoen plazan hasiko da.

27 ZAPATUA

Azken zapatuko feria

9:00 Baserriko produktuen salmenta. Kalebarren plazan.

11:00 Txosna. Skull Drivers taldeak pres-tatuko ditu pintxoak.

12:00 Kale kantariak. Kalebarren plaza-tatik irtengo dira.

12:30 Tailerra. Argizariz egindako kan-delak, umeentzat. Kalebarren plazan.

Eguedian: Ganadu erakusketa.

Arratsaldera arte egongo da ikusgai, Aita Agirre plazan.

29 ASTELEHENA

17:30 Historia ikastaroa, Pello Arrie-tarekin. Haizeak antolatuta, udaletxeko arku-peatan hasiko da.

IDOTORBEKO JAIAK

26, BARIXAKUA

19:00 Jainen hasiera.

21:00 Lagunarteko afaria. San Pedro elkartearen. Izena emateko: 618 554 356

23:00 Mus txapelketa

27, ZAPATUA

Enduro moto txapelketa

14:00 Egiaztapenak, frontoian.

16:00 Errekonozimendu itzulia

17:00 Lasterketa

19:00 Sari banaketa

17:00 Bolo txapelketa

21:00 Lagunarteko afaria, San Pedro jatetxean. Izena emateko: 943 740 010.

22:30 Gaupasa, Laja eta Landakandarekin.

Goizaldean,

txokolatada.

28, DOMEKA

10:30 Meza

12:00 Dantzaldia, Haritz EDT taldekoekin.

12:30 Giza proba

14:00 Paella-jana

(Tiketak bertan salduko dira, 8 euroan).

16:30 Umeentzako jolasak eta bolo txapelketa

17:30 Idi demak

29, ASTELEHENA

11:00 Prozesioa eta meza

12:30 Pilota partida, Lagunak elkarteak antolatuta.

14:00 Auzotarren eta jubilatuen bazkaria

18:00 Zozketa

ALTZOLAKO JAIAK

26, BARIXAKUA

11:00 Zezen mekanikoa eta puzgarria.

18:00 Kalejira eta pintxoak

22:00 DJ session

27, ZAPATUA

13:00 Txapliguak

14:30 Herri bazkaria, Javi Ruiz kantariak girotuta.

22:00 Karaokea

28, DOMEKA

16:00 Lehiaketak: Musa, tutea, ping-pong...

21:00 Txapliguak, jaietara emateko.

Ondo pasau jaixetan!

Aurrez enkargatuz gero, hobe!

SAN PEDRO

J A T E T X E D
SAN PEDRO AUZOA
Tel. 943 740 010
ELGOIBAR



Aire libreko zinea (Kalegoen plazan)



'Ocho apellidos vascos'

3, barixakua, 22:30

Zuz.: Emilio Martínez-Lazaro. **Espainia, 2014. Iraupena:** 98 min. **Generoa:** komedia. **Aktoreak:** Clara Lago, Dani Rovira, Carmen Machi, Karra Elejalde. Rafa, andaluziar peto-petoea da eta bizitzan behar duen guztia bere herrialdean aurkitu izan duena beti: ardoa, gomina eta emakumeak. Baina bat-batean, emakumezko batek kalabazak emango dizkio: Amaia euskaldunak. Rafa ez dago hori onartzeko prest, eta Euskal Herrira bidaiatuko du, Amaia ren maitasuna bereganatzeko.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

G
U
A
R
D
I
A
K

09:00 - 22:00

26 Barixakua BARRENEXEA
27 Zapata IBAÑEZ
28 Domeka IBAÑEZ
29 Astelehena GARITAONANDIA
30 Martitzena ETXEBERRIA
1 Eguaztena FERNANDEZ
2 Eguena YUDEGO
3 Barixakua ORUESAGASTI

22:00 - 24:00

Astelehenetik igandera
GARITAONANDIA

24:00 - 09:00

ELORZA (Eibar)
Juan Gisasola, 18 - 943 206 100

* Fernandez: Herriko enparantza
4, Garagartza (Mendaro)
Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9
(Soraluze) Tel.: 943 751 384

Telefono interesgarriak

Elgoibarko Izarra.....943 741 626
Udalzaingoa.....943 741 394
Udalaren arreta bulegoa.....943 741 050
Udaleko idazkaritza.....943 743 700
Bake epaitegia.....943 741 630
Gizarte Ongizate saila.....943 741 008
Hirigintza.....943 744 384
Mankomunitatea.....943 700 799
Debemen.....943 744 067
Artekaritza (Hazienda).....943 744 414
Berdintasun saila.....943 741 050
Euskara saila.....943 744 366
Kultura saila.....943 742 158
Udal liburutegia.....943 743 525
Gazteria saila.....943 531 319
Gazte informazio gunea.....943 257 986
Ludoteka.....943 748 883
Gaztelekua.....943 743 228
Enplegua/Merkataritza.....943 741 050
Emugi.....943 747 371
Kiroldedia.....943 744 415
Mintxeta.....943 747 356
Musika eskola.....943 742 145

Udal euskaltegia.....943 742 731
AEK euskaltegia.....607 601 423
KZgunea.....943 023 640
Jubilatu en biltokia.....943 740 526
San Lazaro egoitza.....943 740 296
Eguneko zentroa.....943 744 565
Kontsumo bulegoa.....943 743 088
Taxi geltokia.....943 740 898
Larrialdiak.....112
Gurutze gorria.....943 743 864
Eusko tren.....902 543 210
Pesa.....902 101 210
Correos - Posta.....943 741 547

Mendaroko Udala.....943 033 282
Liburutegia.....943 033 291
Bake Epaitegia.....943 033 289
Eguneko Zentroa.....943 031 746
Mendaro Ikastola.....943 756 141
Hautzaindegia.....943 755 219
Musika Eskola.....943 244 275
Taxi.....607 57 57 28
Ospitalea.....943 032 800



Gaztelekua

Udako programaketa berezia martxan daukagu. Informatu zaituz www.elgoibar.org webgurean edo Instagramen: "elgoibarkogaztelekua"



Ludoteka

Uztailaren 1eko Mintxetarako irteerarako izenematea zabalik. Azken eguna: ekainaren 30a.



Eire Vila

Mikel Olaizola



Jan txokolatiñak!- esaten zion Alvaro de Camposek bere leihotik begira haurri-*jan zikin hórrek*'. Eta txokolatina haietan munduko metafisika dena, erlijio denetan baino ikasgai handiagoak konfiteria hartan. *'Ai! Jan banitzake neuk ere txokolatinak hire egia berdinez!'* kalera begira Alvarok.

Baina muturrak txokolatez eta azukrez zikinduta gozo dendatik ateratzen zen haur hari hankak luzatu zaizkio eta prakak eta ideiak estutu, eta urtu zaizkio eskuak zikinduz txanpon itxurako txokolateak, zilarrezko papera kenduta.

Edertasuna zorion promesa bat omen da. Oraindik amestu dezakeen hark, bizitza oparo eta indartsu zaiolak eta aurretik dena duenak, edertasuna baino ez du aurkitzen inguruan. Hitz emandako zorion hori zimeldu eta higatu denean ere geratzen da, ordea, edertasunik, izan zenaren ba-

besera garamatzana: gaur ezinezkoaren adierazle dira barru hutsa, errotulu eroriak eta beiratoki abandonatuak. Eta ikusten ditut hala ere regalizak eta napolitanak, barkilloak udaran eta burdina zurizko aulki kiribilduetan atsoak tertulian, ebaki banaren bueltan.

Han geratu naiz, leihotik barrura begira, barrutik leihora begira. Garai zahar bat, mundu oso bat ekarri didan orotzapen bat, usainei eta zaporeei tiraka. Dena aldatu da. Eta erlojuetatik ere hareia ihesi, azken hondarrak behatzen miazkatzen dihardut. Orduan errealitate bakar zen hura joan da ketan, itzuliko ez den edertasun baten itzala da memorian, baina hondar horietan eguzkipean etzateko beharra dugu tarteka.

Banoa kalean gora, nire motxila zaharra arrastaka. Igual geratuko da txokolate apurren bat nonbait, karino pixkat. Maite berri bila segi beharko.

"Maite berri bila segi beharko dugu"



Gremioen GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.eus
info@biena.eus

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako Industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.lodoso.es

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

San Roke 10-A behea B
☎ 647 463 436

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 254 522

Pagoaga

Biltegia eta tailerra
San Antolin, 13
☎ 943 740 279
Bulegoa eta erakusketa
Pedro Migel Urruzuno, 8
☎ 943 943 740 512
tienda@pagoagasa.com

Pagoerrota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 756 044/659 334 323

Tellabide

Azpilgoeta, 7 - Mendaro
☎ 943 755 062/607 755 062

Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 740 530/605 714 905
Faxa: 943 531 825



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkalko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04





LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



Abuztuan irekita

ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABERD ORDUTEGIA



Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00** etara

Doctor Antonio Murillo
Hezur Birsarkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Uleidoako Unibertsitatea eta Madril.**
Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfontso X.a Unibertsitatea, Madril.**
Implantologia Masterreko Irakaslea. **Uleidoako Unibertsitatea.**
Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamanca Unibertsitatea.**
Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutensean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora Ainhoa Zulueta
Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.**
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.**
Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**
Hortz-Estetikan Diplomatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutensea.**
Hortz-Estetikan Diplomatua. **Autran Institutoa, Bartzelona.**
Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.**
Oklusioan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURAK
GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMO, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGONSTONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADL...
Galdetuiguazu!

